


B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN




Atal honetan, euskal gizarteak atzerritar jatorriko pertsonen bolumena nola hautematen duen aztertzen da. Gai esanguratsua da; izan ere, migrazioaren fenomenoaren pertzepzioa gairik garrantzitsua ote dagoen jakiteko aukera ematen du. Horrek eragina izan dezake migrazioaren aldeko edo aurkako jarreretan. Horretarako, euskal gizarteak biztanleria migratzailearen bolumenari buruz zer balorazio duen jasotzen da, bai EAEn erroldatutako atzerritar jatorriko pertsonen zifra erreala jakin aurretik duen balorazioa eta bai zifra hori jakin ondoren duena. Gainera, galdetzen zaie ea datozen bost urteetan beren ustez Euskadira atzerritar jatorriko biztanleak iristen jarraituko duten. Eta, aurten, lehenengoz, nondik iritsiko ote diren ere galdetu da.

EAEko biztanle etorkinen bolumenari buruzko pertzepzioa errealitateari doituta dago, 2017koaren aldean. Zehazki, etorkinen bolumenaren pertzepzio txikiagoa du euskal gizarteak; etorkin gehiegi egotearen sententzia txikiagoa da, bai datu erreala jakin aurretik eta bai datuaren berri izan ondoren ere.

Etorkizunean pentsatuz, hamarretik zazpi euskaldunek uste dute bost urtean igo egingo dela Euskadin atzerritar jatorriko biztanleria, eta uste dute magrebtarrak, latinoamerikarrak eta Saharaz hegoaldeko Afrikakoak izango direla.

Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek bertakoen egoera berean izan behar lituzkete eskubide hauek? (%)



g15


Etorkinek zenbait eskubide eta zerbitzu eskuratzearekin lotuta, bertako biztanleriaren iritzia desberdina da eskubide edo zerbitzu motaren arabera:

Euskal gizartearen gehiengoak uste du unibertsalak direla osasuna (% 81,7) eta hezkuntza (% 71,5), eta, beraz, eskubide horiek etorkin guztiek izan beharko lituzketela, haien egoera erregularra izan edo ez izan.

Nolanahi ere, beste eskubide batzuk aipatutakoan (laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak, berrelkartzea, babes ofizialeko etxebizitzak edo botoa emateko eskubidea), euskal biztanleen gehiengoak eskubide horiek murriztearen aldekoa da, eta administrazio-egoera erregularrean daudenek soilik izatea.

Udalerriko edo auzoko bizikidetzagiroa eta harremanak

Otik (oso txarra) 10era (bikaina) bitarteko puntuazioa




Euskal herritarren artean bizikidetzagiroaren pertzepzioa hobetuz joan da 2015az geroztik, eta 2018an batez beste 6,14 puntuko balorazioa izan du.

Horrenbestez, euskal biztanleen eta atzerritarren arteko giroaren pertzepzioa pixkanaka hobea dela esan daiteke.

g7


Atzerriko pertsonak nolakoak iruditzen zaizkizu, Euskadikoekin alderatuta?



Bertako biztanleria eta etorkinena alderatzean, nortasun-ezaugarriei dagokienez, gehien-gehienek uste dute berdinak direla alderdi gehienetan (adeitsuak, arduratsuak, langileak eta solidarioak), matxismoari dagokionez izan ezik. Galdeketa egindako pertsonen % 59,8k uste du etorkinak matxistagoak direla bertakoak baino.

g17

Txartel honetako zurrumurretatik, **zein da, zure ustez, udalerrian edo auzoan gehien zabaldua dagoena?** Eta ondoren? Eta hirugarrenik (%)



Euskal herritarrei galdetu diegu zein diren auzoan edo udalerrian gehien zabaldua dauden hiru zurrumurrak (lehena, bigarrena eta hirugarrena), eta, erantzun digutenaren arabera, Euskadin zabalduen dagoena Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin loturikoa da: “Etorkinak gizarte-laguntzei esker bizi dira eta neurriz kanpo erabiltzen dituzte” (%64,7). Nabarmentzekoa da, neurri txikiagoan bada ere, beste zurrumurru batzuen presentzia eta zabalkundea, hala nola “etorkinek lana kentzen digute”, “etorkinek ez dute hemen gizarteratu nahi” eta “immigrazioak delinkuentzia areagotzen du”.

Beste aurreiritzi batzuk ez daude errotuta euskal gizartean: “Etorkinek espazio publikoak hartzen dituzte”, “ez dituzte arauak betetzen eta ez dute gizalegez jokatzten” eta “ikasle etorkinek jaitsi egiten dute eskoletako hezkuntza-maila”, hain zuzen.